

Itz oni aditz-tankera ematen ba' ziozagu, orduan, izan dezakek itz itxusiaren usai gurealdian, baiñan bein bitartean ez. Nire ustez euskaldunok ez gindukek saiatu bear IZORRA itza baztertzen loi-zipritiñak irixten zaizkiolakoan, baizik eta sustrai ontatik sortutako itzai erantsi zaien zikin kutsua garbitzen. Ez ote duk uste euskerak eta erlejiñoak mesede geiago luke-tela orrela?

Oarra: Nire azkenekoan esaten niken ire «Ume zapuztua» etzitza-

dakela atsegin izan. Ori beingo irakurraldiaren iritzia uken. Geroztik bizpairu aldiz irakurri diat ire olerkitxoak eta bakoitzean mamitsuago eta ederrez ornituago iruditu zaidak. Izan ere, olerkiak eztituk nolani irakurtzeko, egonarriz baizik, sarritan gertatu oi baituk ederra ezkutuan egotea eta ez azalean. Orduan, erleak loreai bezala, eztena barru-ezkutuan sistatuz, gozoa ateratzen jakin bear. Agur, adiskide eta gaizki esanak barkatu.

LORAMENDI, *Olerki ta idatzi guztiak*. Yurre'tar Julian Abak eratur. Itzaropena, Zarauz, 1960.

Zorionean erori da nire eskuetan liburu zoragarri au. Loramendi-ren olerkiak, orain arte sakabanaturik zebiltzanak, bilduma eder batean eman dizkigu Yurre'tar Julian Abak. Loramendi olerkiaz ez dago zer esanik. Oraindik berri baiditugu aren jaioterrian egin zitzaizkion gorasarrea ta orduko lanak, batez ere Jauregi'ren saritua. Eta argitaldi oneri buruz berriz ez dugu eskerrak eman baizik. Alegia, bilduma osatu duenari. Gaztediari begira egindakoa da, oarretan aberats eta ugaria. Zail xamarra egingo bailitzaiguke bestela Loramendi'ren olerkietako euskerara oitugabeoi. Ta obeto dago alaxen, erderazko itzulpena alboan ezarriaz baiño, bai. Alperkeriari atek itxi zaizkio. Bedoña'tar Joakin «Loramendi»-ren olerkiak on asko egingo dute gazteen eta guztion artean, ezpairik gabe. Ba-dugu nun ikasia bai euskeraren aldetik, bai bere olerti frantziskotarretik ere.

Idazkiak azalean «Olerkiak» izena daramalarik argitaratu da; baiña ba-ditu itz lauz egiñiko lantxo batzuek ere, izenburu osoak adierazten digun bezala. Itz lauz daudenak ere olerti dira, beraz. Yurre Abaren Aurreitz mamitsu batek azaltzen dizkigu erabilli dituen idazki ta kriterioak xeetasun guztiz. Orixe andiaren itz labur batzuek irikitzen dute libururako atea.

Azken orduan esan zituen itz aiek bete dezaizkigula orain an goitik Loramendi aingeruak: «Zerura noa... zerutik lagunduko dizuet zuei... euskerari... Euskalerriari». Ta bukatzeko, milla esker gaztedi euskalzalearen eta olerki maitaleen izenean Yurre'tar Julian Abari.

KALERO